

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

6/2022 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 15ekoa, baliozkotzeko dena, zerbitzu digital jakinen gaineko zerga onesteko

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

6/2022 Foru Araua, martxoaren 30ekoa, 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, martxoaren 15ekoa, baliozkotzeko dena, zerbitzu digital jakinen gaineko zerga onesteko.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, martxoaren 15eko 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zerbitzu digital jakinen gaineko zerga onesteko.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da martxoaren 15eko 3/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zerbitzu digital jakinen gaineko zerga onesteko.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 30a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA